

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2012ko irailaren 14a
321. zenbakia, 24. urtea



Esku aldaketa Karkaran

KARKARA taldeko zuzendaritzan segitzen zuten sortzaileek erreleboa eman diete kide berriei. Hainbeste urtetako lanaren testigua eskuz aldatu da.

05

Orioko kontuak

Hondakinak kudeatzen

09

Harmailatik

Oiana Blanco

11

Aiako berri

San Migelak Laurgainen

25

Herritarra

Richard Arrese-Igor



Zaragueta Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



ASADOR XIXARIO

Eusko Gudarien Kalea, 2
Tel. 943 830019 - ORRIO



Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 1774

Arrantzale, 31 20810 ORRIO



TAILER MEKANIKO A
MANTEROLA S/L

TXORROKAK - BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORRIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
Eusko Gudari
Eusko Gudari

ISO 9002

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69

Bizkaia kalea, 4 20800 ZARAUTZ



URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA

Pluzifikazio, Auzoenerria, Dakt.

FISIOTERAPIA: Garikoitz Aristegi eta Natalia Wiereszyn
NUTRIZIONISTA: Garbife Aizpuru



sinergia investigacion
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORRIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

URAITZ

kurandegia

farmaziaz

Enkainatzailea Txar: 943 83 18 97

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Fileto eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldi-roko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 43
e-mail: harraspil@harraspil.net

PERTSIANAK

AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORRIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2, 2. ezkerria ORRIO

Tl: 618 581 398 - 659 218 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO

Grupo CATALANA OCCIDENTE

ODITZ

Forma zaharretako irudiak
argi eta eraberrituak


tel. 943 83 00 89



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tl / fax: 943 13 00 77
sagastileihok@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orrio (Gipuzkoa)



RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

Hondartzako ajeak

1

Uztaila iritsi, toalla hartu ta bagoaz irrikitan. Ai zeinen goxo egoten geran plaian goizeko eguzkitan, txiringitoan zerbeza hartuz itsas-brisaren ezbitan... Baina aurten'e pasatu degu uda erdia euritan.

2

Aste batzuez albo batera lagatzen ditugu presak, hala're oporretan izaten dira bestelako kexak. Aurten ere harritu egin gaitu hondartzako hondar ezak. Gizakian kalteak konpontzen ez dira izaten errezak.

3

Garbi dagoenez itsasoak bere tokia egiten du, Hobe genuen egindakoa bi aldiz pentsa bagendu. Batzuk diote *putomuroa* beharko dutela kendu, baina ondoko kirol portua, nola nahi degu mantendu?

4

Gauzak ez ditugu ondo egin, ta ez gaitzen engaina, Kantauri ez diogu hartu nahi bezain ondo tamaina. Nola ez degun errespetatu berak merezi zun aina, itsasoak orain itzuli du guk emanaren ordaina.

321

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com

Editorea
Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria
Lore Berasaluze

Erredakzio taldea
Irati Agirreazaldegia,
Iker Gurrutxaga eta
Eli Lasa

Publizitatea
Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua
Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa
Elizabete Manterola,
Joseba Orella eta
Rikardo Uzkudun

Ale honetako laguntzaileak
Aitor Arregi, Oiana Blanco,
Onintza Lete eta Nikolas
Zendoa

Laguntzaileak
Zigor Esoain eta
Iñaki Iturain

Diseinua
Karkara taldea

Banatzailak
Jone Lete eta
Esti Uranga (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Iker Gurrutxagarekin hitz egin (943 83 15 27) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Pentsioen izoztea

Konstituzioaren 87-3 artikuluan oinarrituta, 4/2006 Lege Organikoaren adostasunean, herri-ekimen baten bidez, pentsioen izoztea indargabetzeko lege proposamen bat aurkeztu nahi da Parlamentuan.

Espainia osoan gauzatzen ari da sinadura-bilketa, eta Euskal Herrian ere bai. Lehen ere egin izan dira halako ekimenak. 2004an *La extinción de los coeficientes reductores a los mayores de 65 años con 35 cotizados* delakoaren aurkako 413.000 sinadura bildu ziren, horietatik % 40 Euskal Herrian. Oraingoan 700.000tik gora bildu nahi dira.

18 urtetik gorako edonork sina dezake, eskatzen diren datuak emanaz, edozein lekutan eta behin bakarrik.

Ekimen honen berri eman nahi izan dut, edonork sinatzeko aukera izan dezan. Interesgarria izango litzateke, Orion ere, norbait arduratzea sinadura bilketaz. Adibidez, *Zaharren Babes Leku*a izan daiteke elkarte egokia, Orion jubilatutako gehien biltzen dituelako.

Hainbat arrazoi ekarriko ditut hona:

1. Zapateroren Gobernuak izoztea onartu zuenean Gizarte Segurantzaren, 2000. urtetik aurrera zetorren superabita zegoen. Eta erreserba-fondoa deritzon 64.000 milioitik gora euro.

2. Konstituzioak dioenez (41-50 art.) exekutiboak, hau da, Zapateroren Gobernuak, ezin zuen bere kabuz horrelako erabakirik hartu.

3. Erabaki honek, dagoen inflazioa kontutan hartuta, erabat murriztu du gure erosteko ahalmena.

4. Zapateroren Gobernuak, oraingoaren antzera, badirudi pentsiodunen bizkar ere jarri nahi dituela egiten ari diren gestio ekonomiko negargarria eta ondasun guztien suntsipena, beren poltsikoak ukitu gabe.

5. Aberatsek eta agintean daudenek jarrai dezatela aberastasun guztiekin; behartsuak, aldiz, behartsu izaten edo are behartsuago bilhur daitezela! Ze inporta zaie.

6. Pentsioen izoztearen ondotik, aska- kolo ze zama gehiago etorriko den gure

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@karkara.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, gure egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

bizkar gainera.

7. Oraingo izoztea kentzea eska dezagun; bai eta pentsioak beharko luketen tokira itzultzea ere, hau da, hartutako neurriak hartu ez balira egongo liritekeen tokira. Gero gerokoak.

Kolektibo oso garrantzitsua gara; egin dezagun bat eta erakuts diezaiegun politikoei ez diegula utziko beraiek nahi dutena egiten.

Eraso garbiak daudenean ez badugu adorerik gurea irmo defendatzeko, ez gaitezen jardun gero besteei errua botatzen. ■ **Antonio Campos**

Bilduren jarrera totalitarioa Orioko Udalean

Azken hilabeteetan nahiko oztoporekin topatzen ari gara Udalean zinegotzi lanak modu egokian egin ahal izateko. Kezkatuta gaude eta Bilduk gobernatzeko duen modu honen inguruko gure kezka jendeari azaldu nahi diogu. Legealdian, hainbatetan salatu izan ditugu Bilduk ezarri nahi dituen forma berriak, txarretik okerrera doazenak. Baina azken boladakoa ezin daiteke onartu.

Zinegotziok batzordeetan egiten dugu lana batez ere: informazioa jasotzeko, zalantza argitu edota gai baten inguruan, zinegotzi bakoitzak alderdiaren irizpideak defendatuko ditu, eztabaidan. Batzorde baten deialdiaren aurrean, gure zinegotziek ordu aldaketa eskatu izan dute; ez zaie erantzun. Gai zerrendako puntu bati buruzko galderak ere ezin ditugu egin; iritzia ezin dugu eman, moztu egiten digute. Hala-ko oztopoak ditugu.

Horrela tratatzen gaituzte, askatasun eta partaidetza hitzekin ahoa betetzen dituzten gobernariak. Partaidetza gora eta behera, sei hilabeteetan ez dira EAJk eskatutako hondakinen gaineko galdeketaren inguruan dagokion kudeaketa egiteko gai izan. Eta gehien kezkatzen gaituena da herritarren ekimenak, zinegotzi-aurkezlearen arabera erabakia direla. Kezkagarria.

Zaharren Babes Lekuak, edadetei erantzuna eman nahian, Kultur Etxe atzeko igogailua konpondu bitartean, plazakoak 24 orduko zerbitzua emateko eskaera egin zuen. Proposamena Bilduren eskutik etorri ez denez, ekimena ez zen onartu. Gainera, noiz konponduko dute igogailua? Lotsagarria da bizilagunak jasaten ari direna.

Jarrera guztiz totalitarioaren aurrean gaude. Ordezkaritza gehien duen alderdiari eta alderdi honengan konfiantza ezarri duten herritarrei errespetu falta izugarria delakoan gaude.

Orain, arazoak konpondu beharrean, prentsara jo izana aurpegiratuko digute. Nola? Batzordeetan ezin da askatasunez eztabaidatu-eta; kaudillo batek beti mozten gaitu. ■ **Orioko EAJ**

Postazko bozka

Orioko EAJ-PNVk jakinarazi nahi die oriotar guztiei, urriak 21ean izango diren datorren hauteskundeetan Oriotik kanpo egongo direnek eta postaz bozkatu nahi dutenek, 943 89 07 89 zenbakira deituz edo ejaj.pnv@gmail.com emailera idatziz, behar duten laguntza guztia jasoko dutela. ■ **Orioko EAJ**

Karkara lagundu nahi dut: Karkara aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago Karkarari urteko 35 euroko laguntza emateko.

Izen deiturak:

Helbidea:

Herria: Posta kodea: Tel.:

Kontu korronteko zenbakia:

Hondakin organikoa jasotzeko edukiontzi gehiago jarriko dira

Hondakin organikoak etxean biltzeko edukiontzi txikiak azoka egunetan banatuko ditu Orio Zero Zabor taldeak. Horrez gain, hondakin horiek nola jaso jakiteko ikastaroak eskainiko dira

Alderdi guztietako bozeramaileek eta Orio Zero Zabor taldeak osatutako Hondakin Mahaiak hil honetan adostutakoaren arabera, aho batez erabaki du hondakin organikoak jasotzeko biohondakin edukiontzi (bosgarren edukiontzi) gehiago jartzea, herritarrek birziklatzearen beharraz kontzientziazteko asmoz.

Ez da marroia: birziklatzea beharrezkoa da kanpaina abiarazi du horrela; alde batetik, birziklapen-tasa igotzeko (%29 birziklatzen da gaur egun Orion), eta, bestalde, herritar guztiak baliabidez hornitzeko. Horregatik, marroi koloreko etxeko edukiontzi txikiak banatuko ditu Zero Zaborrek lau azoka egunetan, ostegun goizez, 09:00etatik 13:00etara. Irailaren 13an ziren horretan astekoak, eta hilaren 20an eta 27an eta urriaren 4an ere plazan bertan izango dira, Kolon Txiki tabernaren aurreko aldean.

1.500 edukiontzi daude banatzeko. Izan ere, 2.000 inguru familia daude Orion, eta horietatik 500ek bakarrik dituzte, gaur egun, bio-hondakin edukiontzia ireki ahal izateko giltza eta hondakinak etxean jasotzeko edukiontzi txikia. Erahorretara, herriko etxe guztietan egongo litzateke hondakin organikoa birziklatzeko modua.

Ikastaroak

Behin herriko familiek birziklatzeko materiala dutenean, hondakinak nola bereizi eta erabili behar diren azaltzeko ikastaroak antolatu ditu Hondakin Mahaiak. Noiz izango diren zehazteko dago oraindik eta udal iturrien arabera, www.oriok.com helbidean argitaratzeaz gain, kalean jarriko diren kartelen bidez jakinaraziko da.

Ikastaroa zenbat lagunek egingo luketen jakiteko, abuztuaren hasieran galde-tegi bat bidali zuten herriko etxe guztietara. Bide batez, gai organikoaren inguruko informazioa biltzeko ere baliatu nahi izan da eskuorria. Zenbatek bereizten duen eta zein legokeen konposta egiteko prest jakingo dute horri esker.

Baina, oporraldia tarteko, jende gutxik erantzun duenez, inkestari erantzuteko eta ikastaroa jaso nahi duela jakinarazteko epea luzatu egin dute mahaikideek.



Birziklapen-tasa igo nahi da *Ez da marroia: birziklatzea beharrezkoa da* kanpainarekin. KARKARA

Interesa duenak irailaren 17a arteko denbora izango du. Udaletxe sarreran dagoen iradokizun postontzian laga daitete esku-orria edota bestela bulegoak@oriokoudala.com helbide elektronikora idatzi.

Norbaitek inkesta jaso ez badu eta bete nahiko balu, udaletxeko harreran

Hondakin organikoak ongarri bilakatzeko, **baietz 50 familik autokonposta egin Orion!** proiektua ere abiatu du Orio Zero Zabor taldeak

daude eskuragarri, euskaraz nahiz gaztelaniaz.

Autokonposta mugarri

Aipatutako kanpainaz gain, beste proiektu bat ere jarri du martxan Orio Zero Zabor taldeak: sukaldako, lorategiko eta baratze hondakin organikoak landareentzako ongarri bilakatu eta hondakin organiko horiek lekuan bertan baliatu nahi ditu, autokonpostaren bi-

dez. Modu horretara, elikadura-hondarrak zein sukaldako, inausketako eta lorategiko hondakinak birziklatzearekin batera, erraustegian erreko liratekeen hondakin kopurua gutxituko litzateke eta hondakin garrarioan ere energia aurreztuko.

Oriotarrak autokonposta egitera bultzatzeko asmoz, proposamen berri bat ere kaleratu du, gainera: herriko lau txokotan (frontoi atzean, Iturbide kalean; Abaromendin; Azkueko parke inguruan, errio aldamenean; eta Dikeko parkean) autokonposta-guneak jarri nahi lituzkete. Proposamen hori gauzatzeko bidean, erronka jarri diete herritarrei: **baietz 50 familik autokonposta egin Orion!**

Bestalde, proiektuaren bideragarritasuna ezagutzeko, zenbat familiak egingo luketen autokonposta jakin behar du Orio Zero Zabor taldeak. Oraingoz, e-mailez ari da erantzunak jasotzen (oriozerozabor@gmail.com helbide elektronikoa), baina beste bide batzuk ere jarriko dituzte laster herritarren galdera-erantzunak jasotzeko eta emateko.

Lan-talde eta erronka berriak ditu Karkara taldeak aurrerantzean

Zuzendaritza batzordea eta lan-taldea erabat berritu ditu Karkarak, aldizkariaren sorreratik proiektuari eutsi dioten kideak agurtuta. Orioko sei lagunek hartu dute haien erreleboa

Urte mordoxka hitz eta irudi artean pasatzen diren ondoren, Karkara taldeari agur esan diote Miren Etxeberrriak, Ana Gonzalez de Txabarririk, Jabier Zabaletak eta Pat Cowiek. Beste lagun batzuen artean herri aldizkari honen sortzaile izan ziren 1987ko San Pedro haietan aurreneko hirua eta, kreatzaile izan ez bazen ere, proiektuari segituan heldu zion Cowiek.

Ia mende laurdena eskaini diote eus-

karari; Orion eta Aian euskara errotzeari, euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatzeari, euskara normalizatzeari eta nola ez, herriko, kaleko eta auzoko albisteak, zeresan eta abarrak etxe guztietara zabaltzeari.

Batzuk joan, besteak etorri

Horrenbeste urte eta gero, erreleboa heldu da gurrera ere. Talde berria du au-

rerrerantzean KARKARA taldea kultur elkarteak. Aurrekoek libre utzitako lekua Onintza Aiestaranek, Iñigo Gaitonek, Idurre Lizarralde, Elizabete Manterolak, Joseba Orellak eta Rikardo Uzkuudinek beteko dute. Irati Agirreazaldegik, Iker Gurrutzagak eta Eli Lasak osatuko dute erredakzio taldea. Lore Berasaluze izango da zuzendari aurrerantzean.

Freskoa da oraindik proiektua, trinkotzeko bidea hasi duena eta erronka berriei heldu nahi diena. Hala eta guztiz ere, KARKARAK hasieratik izan dituen konpromisoak eta izaerari eustea eta sendotzea ditu helburu.



Zahar eta berri, erreleboa iritsi da KARKARA ere. KARKARA

LABUR

Lanak

Kultur Etxe atzeko igogailua

Uztailaren 9an, goizaldeko 02:00ak aldera Kultur Etxe atzeko igogailuan sua piztu zuten eta kalteak eragin. Konponketa lanak irailan egin dituzte, horretarako behar ziren pieza iritsi direnean. Igogailuko kabinako argiak, botoiak, kableak eta igogailuaren trakzioarako kablea aldatu behar izan dituzte eta 8.000 inguru euro kostatu da konpontzea. Laster jarriko da martxan igogailua.

Kultura

Iñigo Manterola Quorumen

Iñigo Manterola oriotarrak erakusketa jarri du Madrilgo Quorum galerian, aurrenekoz. *Paseos por el soporte* segidako 21 lanek -7 argazki eta 15 eskultura, horietako bat tamaina handikoa: 1,6 metroko altuerakoa- osatzen dute oraingo erakusketa. Irailaren 29a arte izango da jendaurrean. Hurrengo erakusketa, berriz, Iruñeako Ormolu galerian jarriko du Manterolak. Azaroan izango da hori eta segida bereko lanak izango dira ikusgai. Eskultura eta argazkiez gain, margoak ere jarriko ditu Nafarroan.

Julen Alonso bigarren trikitiarekin

Irailaren 5ean jokaturako Zarauzko 31. trikitilari gazteen txapelketan bigarren izan zen Julen Alonso soinu-jotzaile oriotarra, Eneritz Aulestia pandero-jotzaile zarauztarra lagun zuela. Bikote gazteak jotako kantuen artean, Julenek berak sortutako pieza bat jo zuen. 16 urte baino ez ditu Alonsok eta aurretik esku soinuarekin eta pianoarekin jarduna bada ere, aurten hasi da trikitilari-txapelketetan parte hartzen. Zarauzko bigarren postuaz gain, Martindegiko -Hernaniko- lehiaketako txapela lortu du dagoeneko. Etorkizun oparora duela dirudi.



Ardi bat aukeratu dute 5. gazte festen irudi. GAZTE FESTETAKO BATZORDEA

Irailaren 28tik 30era Orioko Gazte Festen 5. edizioa izango da

Festak antolatzeke lanetan dabilzanek programa txukuna osatu dute beste urtebetez. Aldaketak izango dira eta, besteak beste, kalez kale ibiliko dira lehen egunean *bota ura* egiten. Urtero irudi bat aukeratzen dute festetarako, eta aurtengo ardi bat izango da.

Aurtengo Gazte Festetan aldaketa handiak ez dira izango, baina bai nabarmenak. Piraten danborrada kentzea erabaki duten arren, bertan izaten ziren musikariek larunbat arratsaldeko giroa goxatuko dute, txaranga osatu eta kalez kale musika joaz.

Danborrak astindu ordez, *bota ura* oihukatuz ibiliko dira kalez kale. Tabernetara karro batean eramango dituzten bainu-batak jantzita sartuko dira txukun txukun. Horrez gain, paella lehiaketari, txirigotei eta baltsa karrerari eutsi diete –azken hori, aurtan ere gaztetxetik herrira egingo da–.

Orioko Udala DYaren zerbitzuaz, txosnaz, errepidea mozteaz eta komun publikoa jartzeaz arduratuko da. Bestalde, gastuei aurre egiteko, koadrila bakoitza zozketarako errifak saltzen ari da. Galerna jatetxean mariskada bat eta Aterpetabernan asteburuko menu berezia dira sariak. Zozketa eguna irailaren 30ean, baltsa karrera bukatzean, izango

da, baltsa karrera bukatu ondoren. Zenbaki bakoitza euro batean erosi daiteke.

Autogestioan sinisten duten gazteak dira antolatzaileak. Festak antolatzeaz gain, urte guztian hainbat lan egiten dute bestelako ekitaldiak antolatu eta herriari bizia emanaz.

Antolaketa lanetan urteroko jende bera zebilela ikusita, jaia bertan behera uztekotan izan dira aurtan. Halakorik ez gertatzeko, bileretara jende berria joateko eskaera egin zuten gazteek. Erantzun ona jaso zuten gazteek eta 50 inguru lagun elkartu ziren hurrengo bileran. Kultur Etxe atzeko plazan egin dituzte bilera guztiak, udako astelehenetan, eta gustura daude egindako lanarekin. Dena dela, gazteenen bultzadaren falta sumatu dute. *Hasierako festetatik antolatzaile gazteenak ginenok jarraitzen dugu gazteenak izaten. Helduenek erreleboa behar dute, eta, gazteagoak ez badira aktibatzen, iturria agortzeko arriskua dago, adierazi du Egoitz Dorronsorok.*

5. GAZTE FESTETAKO PROGRAMA

Irailak 28, ostirala

18:30 Festen hasiera: *baldekazua* eta *bota ura*

Ondoren Argazkia plazan

23:00 Kontzertuak: *Blaka* eta *Willis Drummond*

Irailak 29, larunbata

12:30 Paella lehiaketa

14:30 Herri bazkaria

Ondoren Txirigotak, jolasak eta poteoa txarangarekin

23:00 Kontzertuak: *Fly Shit* eta *Fun & Go*

Irailak 30, igandea

06:00 Aulki-jokoa eta diana, gaupaseroen omenez

17:00 Baltsa karrera

Ondoren Gazte festetako errifen zozketa

Atzetik Kontzertua: *Ri ta Karre*

Bukatzeke *Kixkurneren* jaitsiera



Orio B-ko mutilak play-off aurreko saioan. KARKARA

Mailaz igo da Orio B eta neskek bukatu dute denboraldia

Lutxanan eta Hondarribian nagusitasunez irabazi zituzten estropadak San Nikolas ontziko mutilek. Dena dela, lehen ontziak zer egiten duenaren zain egon beharko dute KAE-1 ligan ziur izateko



Orioko estropadako kanpoko balizan Orioko nesken trainerua. KARKARA

Erandioko 25. bandera eta play-offa irabazita, denboraldiari bukaera aparta eman diote Jose Luis Agirrearen esantzan aritu diren San Nikolas ontziko arraunlariak. Irailaren 1eko eta 2ko jardunaldiak bigarrenari denbora tarte handia aterata irabazi zituzten oriotarrak. Gainera, urte guztian aurretik izan duten Trintxerperi aurre hartu zieten mutilek Erandion, irailaren 1ean, 29 segundo aterata. Hala ere, bien tartean, San Pedro Bizan zen, bigarren, 20 segundora. Oriok 20 minutu 2 segundo eta 76 ehunekora.

Igandean, irailaren 2an, lasaitu gabe, estropada irabazteko asmotan irten ziren arraunlari oriotarrak Hondarribiko uretara. Hiru taldeen arteko lehiari gogor ekin zioten Agirrearenek eta bigarren izan zen Hondarribiari 40 segundo pasatxoko tarte atera zioten, KAE-1 mailara igotzeko txartela lortuz. Hirugarren izan zen San Pedro.

Datorren denboraldian KAE-1en arituko diren ala ez jakiteko, ordea, pixka bat gehiago itxaron beharko dute bigarren taldeko mutilek. Lehenik eta behin, KAE-1etik TKEra igotzeko play off-aren zain geratu beharko dute, Orio A-k egiten duenari begira. Lehen taldeak TKE aritzeko txartela lortzen ez badu, KAE-2n geratu beharko dute bigarren ontzikoek. Mirotza datorren denboraldian TKE arituko bada, Orio B ontziak Amegrove egiten duenaren baitan izango du bere etorkizuna, dirudienez. Izan ere, galziarrak TKEra igotzen badira, KAEko ordezkarien erabakiaren zain egon beharko du Oriok: kasu horretan, TKEtik Zumaia eta Zierbena jaitziko lirateke; KAE2tik Trintxerpe eta Orio igo; eta gainerako KAEko ontziekin 13 izango ziren lehiarako traineruak, berez, 12k behar luketen tokian

Neskek denboraldia bukatuta

Neskek, Lekeitio esan zioten agur 2012ko denboraldiari. Kontxarako sailkapen estropadan 6. izan ziren Klaudio Etxeberriarenak eta Gipuzkoako Liga abuztuan bukatu zuten, 5. tokian.

Azken test estropadan, Orion, uztaillaren 1ean, bandera irabazi arren, 4. eta 5. tokian ibili dira Txiki ontziko neskek eta azkenean Hibaikak aurre hartu zien sailkapenean, 2 puntuko alde aterata.

Kontxatik kanpo mutilak ere

Sailkapen estropadan 10. izan ziren Igor Makazagarenak. Kanporako denbora kaxkarra eginda, barrurako luzea 7. egitea ez zuten nahikoa izan. KAE-1eko bandera guztiak irabazita, play-offa izango dute asteburuan: Bermeon, larunbatean; eta Portugaleten, igandean.

“London 2012”

2008ko Olinpiar-Jokoak hasi ziren egunetik Londresera joatea izan dut buruan. Lau urte luze eta gogorrak izan dira, baina helburu horretan murgilduta azkar pasa direnak. Azkenean sailkatzea lortu nuen eta nire ametsa bizitzeko aukera izan dut, familiakoen gertutasuna eta laguntzarekin, gainera. Zer da hau baino hobea?



Egia esan ez nago gustura lortutako emaitzarekin, baina aldi berean oso gustura nago egindako lanarekin. Borroka bakarra egitearen pena, baina olinpiar tatamian lasai, gustura eta ondo aritzearen sentipenak ditut. Azken finean, tata-mi barruan nahiz kanpoan disfrutatuta egin dut. Hiri olinpiarra ikaragarria da eta bertako giroa paregabea. Mundu osoko eta kirol guztietako kirolariak pareko sentitzen gara egun horietan eta guztiok amets bera bizi dugu. Gainera, beste kirol batzuk ikusteko aukera izan dut eta besteen txapelketa gertu sentitzen duzu. Izan ere, badakizu zenbat lan egin behar den horraino iristeko.

Lehen aipatu dudana bezala, familia-koak ere bertan izan ziren eta momentu deserosoren bat pasa beharra izan duten

arren, esperientzia paregabea izan da haientzat ere. Azken lau urteetan eta aurretik egindako bide luzean ere haien laguntza izan dut momentu guztietan eta ez zaie inoiz animo hitz edo keinurik falta izan. Beraz, nire ametsaren parte zen familia-kideak ere han izatea eta ametsa haiena ere sentitzea eta gozatea. Hala izan da eta ez dago hori baino sentipen ederragorik.

Baina ezin ahaztu etxean geratu zirenak. Hain momentu gogorrak bizitzea tokatuta ere, animo hitzak besterik ez zituzten niretzat. Guztiak emandako indarrarekin joan nintzen, bai noski.

Eta bueltan? Nahiko engainatuta etorri nintzen bai, eta azken momentura arte ezer susmatu gabe. Herrira iritsi eta familia osoa, lagunak, judoko kideak, ilobak lore sorta eder batekin... a ze sorpresa! Eta gero, ikaragarritzko harrera: txutxu tren, kamisetak, Sarasuako loreak, txaranga, gazteak atzetik *aupa Oiana* builaka... Eta behin plazara iritsitakoan, jende pila bilduta eta montaje ederra, dena prest: hasi antortzarekin, *pebeteroa* piztu, agurra, bertsoak, uztai olinpiarrik, opariak, afaria, tarta ederra eta guzti... hainbeste gauza izan ziren, zerbait aipatu gabe geratu bazait barkamena eskatzen dudala. Baina momentuan nahiko lan izan nituen gauza guztiak barneratzen eta hurrengo egunak ere horretan eman nituen; momentu denak oroitzen eta berriro ere denaz gozatzen.

Benetan hunkigarria eta txapela kentzekoa, baina izan zen dantzarako txapela kentzea ahaztu zitzaionik ere. Baina onerako noski, bat gehiago jardun baitzen niretzat dantzan; urrutitik jardun zen, baina gugandik ezin gertuago.

Eta udaletxeko balkoian esan nuen bezala, guzti hau inolako emaitzarik gabe.

Eskerrikasko Orio.

Hiri olinpiarra ikaragarria da; paregabea bertako giroa. Mundu osoko eta kirol guztietako kirolariak pareko sentitzen gara; guztiok amets bera bizi dugu. Gainera, beste kirol batzuk ikusteko aukera izan dut eta besteen txapelketa gertu sentitzen duzu. Izan ere, badakizu zenbat lan egin behar den

LABUR

Arrauna

Teknifikazio zentroa

Uztailaren bukaerarako bukatuta behar zuten Orioko Arraun eta Piraguismo Teknifikazio Zentroko eraikuntza lanek. Baina bigarrenengo solairuko lur zati bat behar den bezala ez zegoela-eta, lanean jarraitu behar izan du Construcciones Amenabar S.A.enpresak, lurra baldintza egokietan jarri arte. Lan horiek bukatuta, Orioko Udalaren eskuetara pasa da Teknifikazio Zentroko ardura, eta segidan hornitze lanei ekingo zaie. Gimnasioko makinak eta altzariak, ergometroak, gainerako altzariak, hipoxia-tresnak... sartuko dira zentroan. Horiek guztiak zein enpresaren esku utzi erabakitzeo lehiaketak eta esleipenak eginda daude eta, hortaz, hasteko moduan daude horniketa lanak.

Kiroldegia

Txukuntze lanak bukatuta

Abuztuaren 27tik irailaren 10era itxita egon eta gero, irekita dago Karela kiroldegia. Konponketa eta urteroko mantentze lanak egin dituzte; aldageletako txukunketak, fitness gelako makinak mantentzea eta igerilekua hustu eta barrutik dena garbitzea, besteak beste. Horrez gain, pista nagusiko lurreko marra berriak margotu dituzte, squasheko argitasun arazoak konpondu dira eta plataforma berezi batekin pistako argiteria txukundu dute. Bukatzeko, kiroldegiko pitzadurak konpondu eta euri-urak biltzeko kanala eta hodiak jarri dituzte faxadan.

Saskibaloia

Denboraldia martxan

Aurten 7 talde arituko dira lehian Orioko kiroldegian: senior gizonezkoak, junior emakumezkoen bi talde, kadete mutilak, kadete nesken bi talde eta infantil taldeen neska. Junior neskek asteburuan jokatu dute lehen partida, larunbatean, irailaren 15a, 16:00etan Carnicas San Marcialen aurka.





Izeta II.a Guinness marka jarri zueneko domina eskuan duela. ARTXIBOA

Izeta baserrikoak nagusi udako lehiaketetan

Izeta II.ak hiru txapelketa irabazi ditu, bi harri baldarrarekin, eta Izeta III.ak harri txikietan Mallabiko txapela irabazi du, prestigio handia duena. Abuztua ona izan da, beraz, Aiako harrijasotzaileentzat.

Lehiaketa eta erakustaldi asko egin dituzte uda honetan ere Aiako eta Orioko harri-jasotzaileek harri txikiei dagokienean. Izeta baserriko Joxe Ramon, Jexux Mari eta Odei, Oriora ezkonduak Joseba Ostolaza eta Aimar Galarraga oriotarra izan dira herriz herri egin diren harri-jasotze saioetan.

Lehen saioa Berastegin egin zuten. Han izan ziren Joxe Ramon Iruretagoiena, Izeta II.; Jexux Mari Iruretagoiena, Izeta III.; eta Aimar Galarraga. Lanerako 113 kiloko harri irregularra izan zuten es-

kuartean harri-jasotzaileek. Bost minutuko saioak egin zituzten eta Izeta II.a nagusitu zen 17 altxaldi emanda. Laugarren izan zen Izeta III.a eta seigarren Galarraga.

Handik hiru egunetara, Izeta III.ak Mallabiko txapela irabazi zuen, prestigio handia duena. Odei Iruretagoiena, Izeta IV.a; eta Galarraga izan ziren Jexux Mariarekin lehian. Bi harriarekin jardun ziren lanean, 100 kiloko bolarekin eta zilindro zaharrarekin, bost minutuko txanda batenan.

ZENBAKIA

9

Txapela. Igeldo Harriaren txapelketa ezagunean Izeta II.ak dituen txapela kopurua da zenbakian jarritakoa. Goenatxoren 12 txapelak geroz eta gertuago ditu Urdanetakoak, nahiz eta Goenatxoren 19 jasoaldiko markatik urrun ibili. Harri traketsekin oso ondo moldatzen dela erakutsi du uda honetan ere Joxe Ramon Iruretagoiena, Izeta II.ak.

Faborito ziren Izetako osaba-ilobak txapela irabazteko, eta bietan zaharrenek irabazi zuen, lehen esan bezala, bi harriei 84 altxaldi emanda. Bien tartean Ondarroako Inar izan zen, 83 altxaldirekin, eta hirugarren Izeta IV.a, 80 altxaldirekin. Galarraga oriotarra seigarren izan zen, harriei 58 altxaldi emanda.

Izeta II.a Igeldo Harriarekin nagusi

Abuztuaren 18an, Donostiako Trinitate plazan, 2012ko Igeldo Harriaren proba jokatu zen urtero legez.

Han izan ziren Izetako bi anaiak, Izeta II.a eta III.a eta Galarraga. Izeta II.ak irabazi zuen proba 15 jasoaldirekin, bigarrenak baino 3 gehiago. Izeta III.a bosgarren izan zen 10 altxaldi emanda eta Galarraga 7. zazpi jasoaldirekin. Gauzak horrela, Izeta II.ak udako bigarren proba irabazi zuen.

Handik astebetara, Elgoibarko San Bartolome jaietan egindako txapelketan hartu zuten parte Izetako anaiak eta hurrengo belaunaldikoa den Izeta IV.a gazteak. Beste bi harri baldar izan zituzten jasotzeko. Bata Belaustegi harria, 146 kilokoa; eta, bestea, Mintxeta harria, 125 kilokoa. Biak hala biak jasotzeko zailak ziren. Belaustegi harriarekin ez ziren ongi moldatu, eta Izeta II.ak, Ugartemendiak eta Eizmendik launa jasoaldi eman zizkioten. Mintxeta harriarekin hobeto jardun ziren: 17 jasoaldi Izeta II.ak, 13 jasoaldi Izeta III.ak eta 11 altxaldi Ugartemendiak. Gauzak horrela, Izeta II.a izan zen nagusi 21 altxaldirekin gutzira. Izeta III.a izan zen atzetik 16 jasoaldirekin eta Izeta IV.a bosgarren izan zen zazpi altxaldi emanda.

Azken saioa Alkizan egin zuten irailaren 8an, Joseba Ostolazak eta Izeta II.ak. Harri txikiarekin jardun ziren: 125 kiloko errektangularrarekin eta 125 kiloko kubikoarekin. Bi minutuko bina saio egin da, Izeta II.ak irabazi zuen errektangularrarekin 2 jasoaldi gehiago eta kubikoarekin jasoaldi bat gehiago emanda. Uda bikaina, beraz, Joxe Ramonena.



Herri kirol jaialdia izango da, besteak beste, San Migel egunean: argazkian, Ostolaza. KARKARA

Trikiti-soinuak, kirola eta herri-afaria Laurgaino festetan

Irailaren 28an, jai bezperarekin, hasiko dira aurten festak eta San Migel egunarekin, larunbatarekin, bukatuko. Bi egunetako saltsa jarriko du, beraz, jai batzordeak

Irailaren azken ostiralarekin hasiko dira 2012ko sanmigelak Laurgainen. Bi eguneko jaia antolatu du festa batzordeak aurtengorako, urtero moduan, jendea elkartu eta ondo pasatzeko asmoz.

Irailaren 28an

Jai bezperako herri afariarekin berotuko dute giroa ostiralean. Iazko edizioan 80 bat lagun bildu ziren mahaiaren bueltan eta aurten ere antzera izatea espero da.

21:00etatik aurrera, mokaduak –urdaiazpiko tortilla, txorizoa...–, txuleta eta entsalada, gazta eta irasagarra, kafea eta kopa izango dira dastatzeko, 25 euroren truke. Afariak gozatu nahi duen guztiak irailaren 26a baino lehen eman beharko du izena Iturriotzengan.

Behin tripa berdinduta, erromeria izango da afalostean. Goizaldera arte arituko dira soinu-jole eta panderojotzaileak festazaleak dantzarako animatzen.

San Migel eguna

Egun osorako zeregin eta zer ikusia izango dute laurgaindarrek eta auzora hurbiltzen diren guztiak irailaren 29an, San Migel egunean: goiza ondo hasteko, meza izango da 11:00etan. Hamaiketako izango da ondoren: haragi-egusia eta txorizoa eskainiko dituzte. Atzetik, berri, herri kirolen txanda izango da. Egurra mozten eta harri jasotzen, Landarbideta konpainiaren arteko erronka ikusi ahal izango da. Ostolaza eta Andonegi trikitilarien erritmoan arituko dira kirolariak lanean.

Arratsaldean, aldiz, mus txapelketa izango da Atsedeen-Toki elkartean. 16:00etatik 16:30era bitartean, Atsedeen-Tokin bertan eman beharko da izena kartajokoan parte hartzeko.

Ostolaza eta Andonegiren trikiti soinuekin bukatuko dira aurtengo San Migelak. 23:00etatik aurrera izango da hori.

LABUR

Kultura

VII. argazki lehiaketa

Bukatzean da Aiako VII. argazki lehiaketan parte hartzeko epea. Izan ere, irailaren 29a izango da argazkiak Aiako Kultur Etxean entregatzeko azken eguna. Aurtengo edizioan, *Elkano eta Urdaneta auzoak* du gai lehiaketak.

Gazta txapelketan laugarren

Ordiziako Euskal Jaietako gazta txapelketa entzutetsua izan zen irailaren 5ean eta laugarren izan zen Agerreburu base-rrian Jose Luis Odriozolaren gazta. Gainera, gipuzkoarren artean lehena. 25 urtetik gora ari da artzaintzan eta gaztagintzan eta ardi latxaren esnearekin egindako gazta ondu suabea ekoizten du. Lehiaketan guztira 53 gazta aurkeztu ziren eta Jon Etxeberria zeanuriztarak jaso zuen sari nagusia.

Hezkuntza

Haurreskolan lekua

Kimu Haurreskolan irailaren 6an hasi zuten ikasturtea bederatzi umerekin. Haurreskolan 21 haurrentzako tokia dagoenez, hezitzaileek jakinarazi dute, toki horien %75a bete arte matrikulazioa irekia izango dela. Beraz, izena eman nahi dutenek haurreskolara joan beharko dute matrikulazio orriak jasotzera.

Garraioak

Lurraldebus zerbitzuan aldaketak

Oporren ostean, zenbait aldaketa egin ditu Lurraldebus Aiako autobus-zerbitzuari dagokionean: alde batetik, zerbitzu berri bat jarri da goizean. 11:00etan aterako da autobusa Aiatik eta Pagoetatik barrena, 11:20 inguruan iritsiko da Zarautza. Horrez gain, arratsaldeko zerbitzuan ere aldaketa txiki bat egin da, Zarautzik Aiara datozen batxilergoko ikasleen eskaerari erantzunez. Horrela, eskolak bukatu eta segituan, 15:45ean aterako da autobusa Zarautzik (16:40ean izaten zen lehen). 16:00etan egingo du geldialdia Orion eta Aiara 16:20ean iritsiko da.

Aisia

Igerilekua itxear

Uda denboraldia agurtuta, irailaren 16an, igandearrekin, itxiko da igerilekua. Datorren urtera arte itxaron beharko da berriro uretan plisti-plasta ibiltzeko.

Agur maitekorra

Bai. Hauxe da hitza, agur maitekorra. 2012ko abuztuaren 3an, eta 20:00etan, Zarauzko zaharren egoitza eta parrokiko elizaren arteko zelaietan, hitzordua geneukan. Hilberria den Erik, 9 urteko mutikoari, azken agurra egiteko. Bazen garaia, maite ditugunei azken agurra egiteko eliza zuloetatik kanpora.

Saminezko bilera bazen ere, hura zen zelaiaren ederra. Zenbat ginen, 1.200? 1.500? Zenbat ume, zenbat guraso gazte, ze isiltasun, ze malko isurtze, baten hutsunea genuelako. Erik mutikoarena.

Xabier Euzkitze zen aurkezle. Lehenengo, Eriken lehengusu Ireneren sarrrera. Pianoarekin, Xabier Zabala zarauztarra, gure adiskidea. Euzkitze aita-

semeen bertsoak. Pako Xerras maisuaren poesia irakurketa eta Erikek izan zituen bost andereñoen adierazpenak.

Eta nola ez, ikastolako ume guztien soinu-jotzaile diren Txapas eta Mertxe Isasti beren soinuekin, mutiko eta neskatok mordoan ondoan zutela. Eriki gehien gustatzen zitzaiona kantatzen: *Txoria-txori*, Mikel Laboarena.

Eta ondoren, Bert, Eriken aitaren irakurketa luze eta hunkigarria, atrilaren aurrean zutituta, bere emazte Ainhoa ondoan zuela.

Lau urtetxo zituenetik, Eriekin egin zituzten ahaleginen berri eman zigun. Ez dakit nola iraun zuen zutik! Tarteka, Eriken zenbait esaldi eta ilusio ere agertzen zizkigun: *sendatzen naizenean, zenbat jolastuko naizen...*

Horrela ari zela, alboko eliza dorreko kanpai nazkagarriak, 20:30eko kanpai danbadak jo zituen. Jakina, une hartako hitzak ezin entzun izan genizkion Eriken aita negartiari, kanpaiaren erruz. Zengatik dinbi-danba hura, guk geneukan isiltasunari?

08:45ean amaitu genuen, *Txoria-txori* kantatuz.

Agur Erik.

Agurra jarri beharra dago, baina zergatik umean? Zenbat galdera ixil datozen, horrela gauden unean. Ziur ez geradela aurkitzen egoera leunean, gure malkoak eta txaloak, nahasten ditugunean.



Txokoak eta jendea

Japoniarrak ere Aia ezagutzen

Eduardo Baranzano gitarra-jotzailearen bitartez eta Gonzalez De Txabarri familiak lagunduta, aurtengo bisitarien artean, goiko irudiko japoniarrak izan dira gurean. Harrituta eta gustura ibili ziren herria ezagutu eta Agorregi, Erreizta baserria, baratzak... bisitatu ondoren; baita hemengo ohitura eta gastronomiarekin ere.



14. Kallabarro, etxea ukuilu

Kukuarriko maldaren ertzean, Txankaerrekak eta Etxaizko errekak sortutako ibarraren behe aldeko sarreran dago Kallabarro baserria.

Garai batean egurrezko egitura bazuen ere, hormigoiak ezkutatu egin du. Izan ere, gaur egun, behientzako ukuilu bezala erabiltzen dute Aganduruberrri baserrikoek eta behar horietarako ego-kitu zuten baserria.

Azterketa baten arabera, Kallabarro baserria XVI. mendean Orio herriko erdigunean eraiki ziren baserrietako bat da. Alde zaharra haztearekin batera gero eta etxebizitza gehiago zeuden herrigunean eta herria San Martin bailara alde-rahazi zen; horregatik agertzen da gaur egun Orioko erdigunetik gertu antzera.

Baserri munduan ohikoa zen bezala, Kallabarro baserria ere jabeek errentan ematen zuten eta nekazal lanetarako lurren behararengatik-edo, eraikinaren inguruan kontzejuarenak ziren lurrak errentan hartzen zituzten.

Orioko beste hainbat etxetan bezala Kallabarro baserrian ere Bigarren Guda Karlistan, Alfonso XII.aren aldeko gudarosteak, kalte nabarmenak eragin zi-

tuen. Besteak beste, sutarako erabili zizuten etxeko zoruetako zurezko oholak, 34 sagarrondo eta 9 gaztainondo.

Gerra Zibilaren (1936-1939) ondoren, Aganduruberrrikoek erosi zuten baserria, baina han zeuden maizterrek Kallabarron jarraitu zuten kalean etxea erosi zuten arte. Ondoren, Kallabarron egon zen A8 autobideak etxerik gabe utzi zuten Lizargarateko familia harik eta etxe berria eraiki zuten arte.

Gaur egun ez da inor bizi Kallabarron; ez dago, ordea, hutsik. Aganduruberrrikoek gobernatzen dituzten behiak baitira hango maizter.

[ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN]

Ille zpaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

MIRANDA
tarima, ate, leiho, eskalera...
behar diren arotz lanak
egingo ditugu
Urdaneta bidea, 1 -669 42 32 70- ZARAUTZ

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361
oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

Hondarra harrotuaz Orioko hondartzetan

EHUko Topografiako bi ikaslek Orioko hondartzetako hondarra ikertu dute, batik bat Antillakoa, izan duten bilakaerarekin kezkatuta. Besteak beste, **hondar aleen tamaina bikoiztu** egin dela ondorioztatu dute, eta horretan eragina izan dezaketela eskoilerek, dragek eta olatuaren norabide aldaketek.

**TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI
ARGAZKIAK: I. AGIRREAZALDEGI, ANE
LOPETEGI, J. AZPIROZETAN. ARGOTE**

Iraila da udaren hondarra eta neguaren hasiera. Iraila da gehientzat hondartza sasoi amaitu eta eguneroko errutinarako pausoa emateko garaia. Eta irailan aurkeztu dituzte, hain zuzen ere, Orioko hondartzetako hondarrari buruz eginiko azterketaren emaitzak Euskal Herriko Unibertsitateko topografiako bi ikaslek.

Nerea Argote zarautzarrak eta Jon Azpiroz leitzarrak egin dute hondartzen azterketa, Jose Migel Edesok, geomorfologian doktore eta proiektuko zuzendariak lagunduta. *Badakigu zein proiektu mota egiten dituen Edesok eta interesa genuen horietan. Guk ingeniari tekniko topografian karrera ikasi dugu; Edeso geologoa da eta era horretako proiektuak egiten ditu. Berak esan zigun nola orain dela urte asko azterketa egin zuen Orioko hondartzan eta bazuela gogoia ikerketarekin segitzeko, azaldu digu Nerea Argotek.*

Hondarraren granulometria ikertu eta jatorria eta propietateak aztertu dituzte, hondarrak, urtean zehar eta itsasoaren egoeraren arabera, izaten duen pilaketa edo galera ikertuz. *Hondarra hartze hutsarekin atera daitezke datu batzuk; beraz, poltsatxo batzuekin etorri, hondarra hartu, lehortu, eta, ondoren, unibertsitateko laborategian galbahetik pasatzen genuen. Horrek erakusten du*

Jon Azpiroz, ikaslea, Antillako hondartzan azterketarako datuak jasotzen.



mostren tamaina nolako den, dio Jon Azpirozek. Hondarrarekin ateratzen diren datuekin, tamainaren eta klasifikazioaren datuekin, alegia, jakin daiteke olatuak ze indar eta zer eragin daukan.

Hondar laginak bederatzi puntutan hartu dituzte: itsas ertzean, hondartza erdian eta atzean. Beren artean badago ezberdintasuna, eta hala izan behar duela diote ikasleek. GPS topografiko batekin ere neurtu dute hondartza, azalera eta bolumen aldaketak ikusteko. Hondartza bi aldetan zatitu dute eta gehiagotan neurtzeko aukera izan arren, eguraldi txarrak lana oztopatu du.

Klima aldaketa eta gizakiak eskoileran edo dragan duen eragina ikertu eta gero, lortutako emaitzak Jose Miguel Edesok orain dela 24 urte jasotako datuekin eta Ane Lopetegik duela 5 urte bildutakoekin alderatu dituzte. Hondar aleen tamaina hazi egin da klima aldaketan eta olatuen indarraren ondorioz.

Tamaina

Azterketaren emaitzen arabera, azken 24 urteotan hondarraren tamaina bikoiztu egin da Antillan. 1988an hondartzako hondarraren tamainaren batez bestekoa 275 mikrakoa zen; 2009an 450ekoa; eta 2012an, berriz, ia 700ekoa izatera iritsi da denborale garaian. *Hondarra gero eta lodiagoa da eta datuak ere okerrera doaz*, diote ikasleek. Azaldu dutenez, badira hondarraren tamaina egokia zein den kalkulatzeko eta horren arabera sailkapena egiteko formula matematikoak eta parametroak; horien arabera hondarra hobea ala okerragoa den ikusten da. *Hondar fina edukitzea da hondartza on baten ezaugarria eta Oriok ez du halakorik*. Argotek dioenez, 2009ko datuekin alderatuta, *ikusten da hondarraren kalitatea asko txartu dela eta okerrera doala*.

Ez dakite ziur Oriokoa den ingurukoetan txarrena. *Irakasleak esan digu gaizkien Oriokoa eta Donostiako Ondarreta daudela eta irtenbide zaila dutela. Ondarretan ere, behin baino gehiagotan entzun dut harriak agertzen direla hondartzan. Gainera, hori dena ezustean gertatzen da. Gehiegipentsatu gabeko saiakerak egiten ari dira, besteak beste, hondarra botatzen. Uste dut azpian harriak jarri zituztela olatuak ez sartzeko eta horren eragina gerora igarri dute.*

Jon Azpirozek dio, alperrik dela itsasoak hondarra eramaten duen toki batean berriz hondarra botatzea, eramango egingo duelako.

Bestalde, horrez gain, Orion dragatzak kalteak eragiten dituela uste dute. *Hondarra azpitik kenduz gero, olatua iristen den lekutik, eta gainera hondar*

“Hondarrarekin ateratzen diren datuekin, tamainaren eta klasifikazioaren datuekin, alegia, jakin daiteke olatuak ze indar eta zer eragin daukan.”

“Hondar fina edukitzea da hondartza on baten ezaugarria eta Oriok ez du halakorik. Argotek dioenez, 2009ko datuekin alderatuta, ikusten da hondarraren kalitatea asko txartu dela eta okerrera doala”

“Hondarra kenduz gero, olatua aurrerago hausten da, indar gehiagorekin etortzen delako. Hondar fin gehiago eramaten du horrela eta lodia gehiago ekarri; badirudi hondartzan gelditzen dena txar hori dela”

“Lehen hondartza eskuin alderantz garatuz zihoan; orain alderantziz gertatzen da: ezker aldean, eskoileraren kontra hondar gehiago dago eta harroketan galdu egin da. Lehen hondartza eskuin alderantz garatuz zihoan. Beharbada, eskoileraren kontra beharrean erriogan gora joango zen hondarra”

“Orioko hondartzan dena harria dago. Jendeak ezer gutxi daki zergatiaz, baina hondarrak berak atentzioa ematen dio, esan du Nerea Argotek. Izan ere, erosotasuna da denek nahi dutena. Hondartzan edozeinek nahiago du hondar fina harria baino”

“Batzuetan ez zaigu komeni hondartzak bere joera naturala jarraitzea, herrira iristen delakoedo, baina erabaki beharra dago naturari pisua eman edota beste neurri batzuk hartu”

fina, hondartzara joan behar lukeena...

Argotereren esanetan, *hondartza elikatzen duen hondarra pilatuta dago hainbat gunetan eta, hori kenduz gero, hondartzak gero eta hondar gutxiago izango du. Azpirozen hitzetan hondarra, gainera, txarragoa izango litzateke: hondarra kenduz gero, olatua aurrerago hausten da, indar gehiagorekin etortzen delako. Hondar fin gehiago eramaten du horrela eta lodia gehiago ekarri; badirudi hondartzan gelditzen dena txar hori dela.*

Beste aldaketak

Hondar-kalitatea ez ezik, hondartzak berak izan dituen bestelako aldaketak ere ikertu dituzte ikasleek. Besteak beste, nabaritu dute hondartzak hondarra galdu duela eta hondartza atzeratu egin dela. Neguan eta udan ez du forma bera izaten hondartzak Jon Azpirozen arabera. *Jose Miguel Edesok ere hala esan zion, ziklo bat egiten duela. Neguan denborale gehiago izaten direnez, aldapa gehiago izaten du, hondar gehiago eramaten duelako. Olatuaren energiak nola eragiten duen ikusteko laginak hartu dituzte, bai eguraldi onarekin eta baita denboraleak pasatutakoan ere. Ikusi dutenez, denboraleen ostean, hondarraren klasifikazioa okertu egiten da, hondar alearen tamaina handitzen baita. Itsaso txarrak ekartzen duen hondarra indar handiarekin iristen denez, bertan gelditzen da, eta hori eramatea berriz kosta egiten da; gero luzerako geldituko da, dio Azpirozek.*

Airetik ateratako argazkietan ikusi dute Antilla hondartzaren eskuin aldeko harroketan hondar gehiago pilatzen zela garai batean eta ezker aldean gutxiago. *Orain alderantziz gertatzen da: ezker aldean, eskoileraren kontra hondar gehiago dago eta harroketan galdu egin da. Lehen hondartza eskuin alderantz garatuz zihoan. Beharbada, eskoileraren kontra beharrean erriogan gora joango zen hondarra.*

Nerea Argotek dio, urautsia ere aurreratu egin dela. *Eskoilerak horregatik egin ziren, ezta? Itsasontzi batzuk ondoratu egin zirelako, korronteengatik.*

Lehendik egina dagoena aldatzeko irtenbideak badaudela uste dute: *kanpoko muturra botatzea, dragatzeari uztea edo draga lanak beste era batera egitea; baina badakigu ez direla irtenbide errazak, eta hori herriak erabaki beharko du. Dena den, ez da azken eskoileraren eragina bakarrik, egindako lan guztiek dute eragina. Lehen zegoen hondartza eta dunak moztu egin dituzte. Orain ez dagoen hirugarren hondartza bat ere sortzen zen. Hiru eskoilera ziren tokian dena bete zuten. Irakasleak aipatzen zuen eskoilera*



1. Nerea Argote, Jon Azpiroz eta Jose Miguel Edeso laginak jasotzen. 2. GPS topografikoaren oinarria Antillako pasealekuan. 3. Itsas ertzean GPS mugikorrek. 4. Antillako hondarra aleen tamaina hazita. 5. Ikasleak hondarra poltsan sartzen.

rik ez zegoen garaian olatuen indarra eta hondarraren garraioa beste modu batean egiten zirela, Oribarzarreraino ere hel-tzen zela hondarra.

Eragina

Hondartzara joaten direnek urtean-urtean sumatu dute hondarraren aldaketa eta badira garrantzia ematen diotenak ere. *Nik entzun dut jendea esaten: Orioko hondartzan dena harria dago. Jendeak ezer gutxi daki zergatiaz, baina hondarrak berak atentzioa ematen dio*, esan du Nerea Argotek. Izan ere, erosotasuna da denek nahi dutena. *Hondartzan edozeinek nahiago du hondar fina harria baino.*

Surf taldekoekin eta Herrio natur taldeko lagunekin izan dira eta hondarraren tamainaz eta kalitateaz gain, surf-lariak badute olatuaren inguruko beste kexa bat ere: olatua erabat aldatu da haien esanetan: *gero eta jende gutxiagok nahi du hondartzara joan, eta beste hondartzara batzuk nahiago dituzte, Zarauzkoa, esaterako. Datu zehatzik ez dugu, baina hondarraren kalitatea hobea dela badakigu. Jose Miguel Edeso Gipuzkoako hondartzan azterketa egiten ari da eta Zarauzkoan beste ikasle batzuk ari dira lanean, eta ongi dagoela ikusten da*, dio Argotek.

Jendearengan, eta jakina hondartzarengan, izan du eragina hondarraren kalitatea eskasteak, baina zerk eragin ote da tamaina aldaketa? Ikerketa egin duten ikasleek bi hipotesi nagusi atera dituzte: *batetik, eskoilera berriaren inguruan egiten diren dragatze lanen ondorioz, sakonera irabazi du gune horrek, eta olatua hausten den lekua aurreratu egin denez, hondar fin gehiago eramatea eragiten du. Energia aldaketa egon da eta fina eraman eta lodiagoa ekartzen du. Ez du erabateko garraioa egiten. Bestetik, kanpoko eskoileraren ondorioz, korrontek eta olatuen norabidea aldatu egin dira.* Hala ere, ikasleen esanetan, egin duten proiektua hipotesi soil bat da eta sakonago ikertu egin beharko litzateke: tinta itsasora bota eta nola mugitzen den ikusita, esate baterako.

Aurrerantzean egoerak txarrera egingo ote duen galdetuta, hori aztertu beharra dagoela diote ikasleek. Baina, Jon Azpirozen hitzetan, *ikerketa hau irakaspen bat ere izan daiteke hondartzetan zer egin behar ez den jakiteko. Batzuetan ez zaigu komeni hondartzak bere joera naturala jarraitzea, herrira iristen delako-edo, baina erabaki beharra dago naturari pisua eman edota beste neurri batzuk hartu.*

Argotek dio argi dagoela zerk daukan garrantzia eta gizakiak esku hartzen duenean naturak bere erantzuna ematen duela, ez duela barkatzen.

KONPONBIDE BILA

Larria da Orioko hondartzaren egoera. Begi-bistan dago arazoak: hondar lodia, harrixkak, aldapa handia, ur zikina... Okerrera egiten jarraitzen du, eta asko eta asko izan dira uda honetan Zarauzko eta Getariako hondartzetara edo Aiako igerilekura joan diren oriotarrak eta Orioko hondartzara ez bueltatzea erabaki duten kanpotarrak.

Joan den urtean, Herrio Natur Taldeak eta Orioko Surf Taldeak herriko alderdi politiko guztiekin bilerak egin genituen banan-banan. Hondartzaren egoeraren inguruan geneuzkan inpresio eta usteak elkartrukatu genituen, eta erantzun positiboa jaso genuen alderdi guzti-guztien aldetik, oker ez bagaude behintzat, gaiarekiko kezka eta hura konpontzeko benetako borondatea sumatu bai genituen haien artean.

Orain, ikerketa lan batek arazoaren zergati nagusiak bi direla erakutsi du: kanpoko barra, hondartzaren dinamika goitik behera aldatu duelako 1997an eraiki zutenetik; eta hondartzaleen jarduna, hondartza aurretik hondarra tonak ateratzen dituztelako astero. Hor dago ikerketa, gorabehera guztiak azalduz, xehetasun osoz irakurri nahi duten guztientzat. Eta gehiago ere etorriko dira, zenbait xehetasun gehiago argitzera, baina argi dago zein diren arazoaren zergati nagusiak.

Arazo potolo baten aurrean gaude. Baporeen sartu-irteera erraztuz Oriok izan zuen arazo garrantzitsuenetako baten konponbidea izan zena, arazo berri baten iturburu bihurtu zaigu. Oriotarren bizi-kalitatean eragina du, batetik, eta bestetik, arazo ekonomiko eta ekologiko nabarmena ere bada. Arazoa ez da berez konponduko. Aitzitik, okerrera egingo duela diote ikerketa egin duten adituek. Horregatik, gaiari serio heltzeko eta erabakiak hartzeko eskaera egin nahi diegu Orioko alderdi politiko guztiei. Gizakiok sortu dugu arazoak, eta gizakiok aurkitu beharko ditugu konponbideak.

Herrio Natur Taldea-Orioko Surf Taldea

Zenbaki hutsak?

Nogeitahiru, hamasei, berrehun eta hirurogeita zortzi. Seiehun eta hogei tabi, berrogei, berrehun eta hirurogeita zortzi, zero, hamar, zazpiehun eta berrogeita zazpi. Zenbakiak. Gehienontzat zenbaki hutsak. Ezer esaten ez diguten zenbakiak. Baten batentzat akaso esanahi berezia eduki dezake hauetakoren batek. Urtebetetze eguna, adina, bikotearekin daraman urte kopurua... Baina, orokorrean, ezertxo ere esaten ez diguten zifrak. Baina elkarren artean badute lotura bat. Ziur lotura hori asmatzeko ariketa jarriko banu gutxi batzuk asmatuko zenuketela. Baina ez da zuen errua. Komunikabide gehienek ezkututzen dituzten datuak daude atzean.

23 urte pasa dira dagoeneko euskal preso politikoen nahiz senide eta lagunen aurkako mendekuzko kanpaina martxan jarri zutenetik. 23 urte, sakabanaketa politikak, alegia. 23 urte haue-tan 16 lagunek galdu dute bizia Espainia

zein Frantziako bideetan. 268 trafiko is-tripu. Batez beste 622 kilometro egiten dituzte astebururo bisitan doazen lagunek. 311 minutu bidean gutxi gorabehera eta iritsitakoan -iristen badira, behintzat- 40 minutu ziztrin bisitatzeko. 40



minutu, ispilu batez banandurik. Nahiz eta politika lazgarri hau daramatenek jarri beharko luketen ispilu aurrean, beraiek jarritako legeak ere betetzen ez dituzten berberak. Guzti honen atzean izen abizenak baitaude. Besteei *kondena* hitza erabiltzeko ahoa betetzen zaie izen abizen berak. Zero, berri, kalean, lantokian, tabernan, gai honi eskaintzen zaizkion segundoak dira. Zero, baita ere, sakabanaketaren helburuaren emaitza. Izan ere, horren guztiaren atzean EPPK -Euskal Preso Politikoen Kolektiboa- suntsitzeko nahia dago. Senide eta lagunen babesa urruntzeko nahia. Baina alperrik. Izan ere, 10 balio duten milaka pertsona daude Euskal Herrian. Eta, presoak Txinara urrunduko balituzte ere, ez lirateke elkartasunik gabe geratuko. Ez lirateke bakarrik geratuko. Bejondeizuela zuei!

Eta zuei, Patxi, Gregorio, Itsaso eta es-petxean zaudeten beste 747 neska-mu-tiloi, muxu goxo 1 eta laster arte.

23 urte pasa dira dagoeneko euskal preso politikoen nahiz senide eta lagunen aurkako mendekuzko kanpaina martxan jarri zutenetik. 23 urte, sakabanaketa politikak, alegia

LURDES
MARRIHOZIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 48
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 83 07 85

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO 943 53 64 94 :: 697 23 86 56
[samera Arrantzale kolektik] libegarmendia@gmail.com

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 53 59 00

LOBETXU JATEXEN

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

gizarte
kutxa

kutixi
kafetegia
GOSARI GOWAK

Arriaga 6, 20810 Oriu
Tel: 943 13 13 17

PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

Lotan

Niez naiz inor zuen etxean sartzeko, baina, hara, ireki duzue KARKARA eta hemen nauzue zuen etxean. Inork pentsatuko du: ze arraio iteu tipo honek KARKARAN idazten? Ez al do herrin hau baino inor txukunoik? Honek lotsik etzekak, ze ikasi du honek hemen idazteko? Ikasi ezer ez, aurpegia galanta zekak! Eta arrazoi izango dute. Ofizio jakinik gabeko langile soil bat besterik ez naiz; hamaika lanetan jarduna bizitza aurrera ateratzeko –ikasle alperraren paradoxa, lanean hasi behar alferra izateagatik–.

Ofizioa baino nahiago izaten dugu afizioa, ordea, eta afizioak ere badituzten hamaika: kirola, bakarriketa, bertsoa, antzerkia, irratia, zinea...

Aspaldian Orion galtzear dagoen espezie batekoa naizelakoan nago: *saltserua*. Nire amak esango lukeen bezala, *debaldeko lane-tan bai, gustoa ibiltze haiz*. Bai ba, gustuko al dapan nekerikez, eta, Orion hainbeste saltsatan ibili eta gero, gauza batez ohartu naiz, saltsa guztietan *kondimentu* berdinak erabiltzen direla; jende bera dabil herriko taldeetan. Baina hori ez zait arazo iruditzen; denbora badugu, zer hobeto gustatzen zaiguna egitea baino. Arazoa errelebo faltan ikusten dut. Orioko gazteak –salbuespenak badiren arren; esaterako, Harribileko dantzariak edo Etxeluziako gazteak–, ez dira batere mugitzen herri mugimenduan. Gordinegia? Agian bai, baina hori da nire iritzia. Lotan egoten gara askotan. Zertarako jaikiko gara, deus ez egitekotan.

Lana ez bedi etor niregana, besteek egingo dute nik egin nahi ez dudana. Lokaletan sartuta egoten zarete, zuen mundu txiki horretatik urrutiago zer dagoen jakin nahi gabe. *Lokalea jun, porro batzuk erre, FIFA batzuk bota ta han eonginuan*. Esajeratua? Ez dut uste.

Gaínean ditugu aurten ere Gazte festak, irailaren azken astean, eta, ezer jakin gabe, nola moldatu diren jakin gabe, esango nuke oraino honetan ere jendea falta zela festak



antolatzeke; ze noski, herri bazkarirako deia egiten denean *exito* bat izaten da, *jende pillak* hartzen du parte. Eta aurretik egin behar izaten den lana zer? *Kontzertuk? Mierda bat*. Non hintzen hi hire gustuko taldeen berri emateko? *Baltsa earra in ziyen, jajaja*. Eta noiz tokatuko zaizue zuei baltsak desmuntatzen egon eta dana txukuntzea?

Ez dut hemen egi osoaren zaindari lanetan azaldu nahi, baina zuen lokaletako lau paretetatik kanpora badaude hamaika gauza egiteko; hamaika jende ezagutzeko. Arazoa, tamalez, ez da zuena, gazte lokaleroena, bakarrik. Nire adin inguruko gazteak ere lotan daude herri honetan. Denok dakigu herria zenek girtzen duen, borondatez; festak direnean, beren festa-denbora gutxitu egiten dutela herri-tarrek festaz gozatzeko; errazena, eta ez politena, lana besteek egitea da norberak izango duen ajearekin bakarrik kezkatzeke.

Astunegia jartzen ari ote naizen susmoa daukat, *parfletarioegia*, baina benetan, sutu egiten naute zenbait gazteren jarrerak eta hitzek: *Gaztetxia ghetto bat bihurtuba zio. No te jode*, jende berririk azaltze ez baduk zer nahi duk ba! Arraina bezala, ideia freskuak eskertzen dizkitek. *Zea jungo gattuk horrea ridikulu itea*. Kar, kar, kar, gustura egiten duk ba barre besteen kontura. *Esan zitxian apaizak bertotara azaltzeko, baino paso*. Zer duk, lotsa probatzeko? Lotsagarri askoa bazebilek hor, *Ximel* edo dalako hori!

Lotan amesten dugu askotan, esnatu beharrean gara horiek gauzatzekotan; lana, nirea bakarrik ez da dana, herri-tarrek hurbil gaitzen alkarrengana.

Niez naiz inor zuen etxean sartzeko, baina gustatuko litzaidake hau irakurri eta norbaiti masailak gorrituaraztea. Pentsatzen jarriko bazinete, eta zuen artean eztabaidatuko baze-nute, asko izango litzateke niretzat; baina etsipena hartua daukat *FIFA*n jolasten jarraituko duzuela, denok dakigunean, *PRO Evolution Soccer* hobe dala.

Nire honetan Lore Berasaluze

Izan gaitzen denok sheriff

Sheriffaren babesean dagoena lasai bizi da Oesteko pelikuletan. *Gaizkileak* garaile diren filmak badira, baina gutxi oraindik ere. Paparreko izarrak errespetuajartzen du, itxuraz.

*Poliziar*en uniformeak, ordea, ez du erantzun bera izaten. Beste zerbaiteko izan *polizia!* Justizia eta Legea norberak sortzen eta aplikatzen ditu gurean.

Herrian hasita, nahi dugu-na egiten dugu: bizikletak espaloitik; autoaren muturra okindegian erakuslehoan sartuta, kopilotuak ogia erosteko; txakur-kakak kolekzionatzeko dauzkagu; kale, plaza eta espaloiak pribatizatu-ta, tabernari eta dendarien gustura... Aireportuetako pistak bailiran, oinezkoen bigeak markatu egin beharko dira laster, jendea ez dadin galdu, nondik pasa behar duen jakin dezan, ez dezan espaloian muturra puskatu.

Berdin digu denak, berdin-berdin. Oinezkoa jaitsiko da kamiora, momentu bat da-eta; kaka zapaltzeak zortea omen dakar eta eskerrak eman beharko dizkiogu txakurraren jabe marizikinari... jateko ez duenari BEZa igo diote, gaixorik dagoen preso-a usteltzen utzi dute –baina hil aurretik aterako dute bada-epada ere, kontxo! Eskuak garbi–. Berdin du; egin deza-tela sheriffek nahi dutena, guk dena onartzen dugu-eta.

KOLON TXIKI
antzerkiak
juztearen
Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

943 83 09 86
KOASTA
Wifi zerbitzua
Kopak, gau giro aparta...

KAIUA
Plater konbinatuak,
boicatak, kanburgesak...
ANBARRO PORTUA 36, BEHEA TEL: 943 840 060

ITZALA
kartela jakatzeko
argia
ul. 943 83 12 59

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 Telf: 943 83 16 57

Automóviles ZARAUTZ

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

Italgailu berriak
eta ibi berriak
sarean

ZARAUTZ. Telf. 943 13 13 50

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

azkue

Tf: 943 13 04 38

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Euzko Gudarri Kalea | 3-15
ORIO
943 83 38 75

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delacruz.pa@allianz.es



www.karkara.com

Alkohol, eragailuak, ibarrek, geroak, sarrak, geroak...

Fresko-fresko, zuretzat!

edariategia

ANTILLA
juleteak

Miraflores Kalea, 2 - Telf. 943 83 23 00



ETA ZUZENEAAAAAAN!!!

KARKARA

Hamabostero zuengana frexko-frexko...

Gaia emanda Krisi garai honetan, nolako etorkizuna dute herri-komunikabideek?

Aldaketa badator

Krisi garai honetan nolako etorkizuna dute herri-komunikabideek? Galdera horixe egiten ari da sektore osoa. Eta horrekin lotuta, beste hau ere bai, garrantzitsuagoa du darrik gabe: *Krisi garai honetan, zer egin herri komunikabideek etorkizuna izan dezaten?* Ez daukat zalantzarik; herri komunikabideek badute etorkizuna. Baina bidegurutze garrantzitsu baten aurrean gaude. Hainbat arrazoigatik, orain arteko formatuak eta lana egiteko moduak ez du balio gehiago, ez du balio hemendik aurrera. Ez dago dudarik, gauzak egiteko modua aldatu egin behar da aurrera egin ahal izateko. Baina etorkizuna bermatuko duten klabeak definitzeko daude oraindik. Hala iruditzen zait niri.

Bide egokiak aukeratzeko ezinbestekoa izango da egoeraren diagnostikoan asmatzea eta aurre egin beharreko arazoak ondo zerrendatuta izatea. Hasteko, krisia aipatzean, bi krisi motaz hitz egin beharrean gaude. Krisi ekonomikoak irakurketa erraza dauka: euskarazko komunikabide asko (herri aldizkariak, eskualdeko Hitzak, Berria...) diru laguntza publikoei esker ari dira bizirauten. Eta une hauetan ez dago dirurik erakunde publikoetan. Horri gehitu behar zaio publikitate bidezko diru sarrerek ere behera egin dutela.

Beste krisia kazetaritza ereduari dagokiona da. Mundu mailako fenomeno da, Hitzari edo KARKARARI bezalaxe, New York Times edo El Pais-ieragiten ari dena. Papera eta Internet nola uzta-

tu, gizartearen aldaketak geure egin eta harekin batera nola aurrera jo, hortxe gakoa. Paperak ematen du dirua oraindik, baina gero eta gutxiago: salmentak jaitsi direlako, publizitatea jaitsi delako... Internet hor dago, sekulako aukerak eskainiz, baina momentuz komunikabideen sektoreari apenas ematen dion diru sarrerarik, gurean, behintzat. Sareari zukua nola atera, hortxe dabilta mundu osoan proiektu egokia asmatu nahian. Bizirauteko zehazki zer egin oso argi izan ez arren oraindik, Interneti begira dago sektorea Euskal Herrian zein mundu zabalean. Alegia, etorkizun hurbilean www.karkara.com edo zarautz.hitza.info indartsu bat egotera

Krisi ekonomikoak irakurketa erraza dauka: euskarazko komunikabide asko diru laguntza publikoei esker ari dira bizirauten. Beste krisia kazetaritza ereduari dagokiona da. Papera eta Internet nola uzartu, gizartearen aldaketak geure egin eta harekin batera nola aurrera jo, hortxe gakoa.

bideratu behar ditugula indarrak denok ere. Hori nola egin pentsatu behar da, baita papereko egunkari eta aldizkarietako protagonismoa zenbat murriztu behar da zaien ere.

Herri komunikabideez ari gara, ordea. Euskarazko komunikabideez. Eta hemen bada beste arazo bat, eta ez nolanahikoa gainera: euskal komunitatea txikia izatea. Hori ez da horrenbesteko arazo bere horretan, nire ustez. Baina bai komunitatea txikia izanik, sektorea bera krisian egonda, eta horri krisi ekonomiko gehituta, bakoitza bere aldetik joatea. Zergatik ez indarrak batu euskal gizarteari kalitatezko informazioa euskaraz emateko? Nor bere nortasunari eutsita; ados. Baina aprobetxatu dezagun ondokoaren lana, esfortzua, eta eskaini diezaiegun geuk besteei geurea. Izan ere, diru laguntzak desagertzen hasten badira, zenbat denbora iraun dezakegu bakoitzak bere zilborrari begira?

Zorionez, sektorea ez dago lo. Euskal komunikabideek eta hor barruan herri komunikabideek etorkizuna izan dezaten lanean ari dira hedabide guztietan. Eta, adibide gisara, hor dago besteak beste euskarazko hedabide ez publikoaren elkarrekin sortu izana.

Zailtasunak zailtasun, ni behintzat itxaropentsu nago, erronka berriei aurre egiteko gogoz. Garai berrietara egokitu eta sakabanatuta dagoen lan eta indar guztia norabide bera hartzen ikusteko irrikaz.

Onintza Lete

Urola Kostako Hitzako zuzendariordea

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK |
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK |
FATXADEN ERABERRITZEAK |
IGOGAILUEN PROIEKTUAK |
GREMIO KOORDINAKUNTZA |
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... |

ITURRIBIDE 8, 5. BULEGOA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722

2GURPIL



Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orrio (Gipuzkoa)
943 835 980 | www.2gurpil.com | 2gurpil@hotmail.com



Peter Karres eta Jose Luis Korta: arraun-irakasle ona, alemana; eta ikasle are hobea, oriotarra. KUTXA FOTOTEKA

Peter Karres Orion (I)

Oroimenaren kutxa

960 eta 70eko hamar-kadetari horrenbeste estropada irabazitako Orioko zortziko arraun-ontziak Peter Karres izena zuen. Nor zen Peter? Erantzuteko, Ibon Gaztañazpik egin zion elkarrizketa bateko hitzak hartu ditugu:

Karres Transilbanian jaio zen 1942an. Ingeniari, interprete, puntako kirolari, negozio gizon eta arraun-entrenatzailea izan da. Bizitzak bate-tik bestera ibili du Karres: Austria, Alemania, Brasil, Espainia, Portugal eta... Orio.

Gure herrira arraunak ekarri zuen. 17 urterekin hasi zen arraunean, Alemaniako txapelketan skiffean 3. sailkatu-

ta, hango selekziora deitu zuten. Europako txapelketa irabazi zuen zortziko ordezkoa izan zen. 1967an arraun giroan erabat murgilduta zebilen. Lagun min batek deitu zion Frantziatik, Heit Luc-kenga arraunlariak. Heit prestatzaile lanetan zebilen han, eta oriotarrak berarekin harremanetan jarri ziren, Orion sortu berri zen arraun elkarte olinpikoan entrenatzaile lanak bete eta arraun mugikorrean erakusteko. Heit-ek ezin zuen orduan Euskal Herrira etorri eta Peterri egin zion proposamena. Karresek ez nuen bi aldiz pentsatu.

Oriora etorrita, erabat harrituta geratu zen. Hasteko, ez zuen Euskal Herriaren berri; uste zuen Espainiako ipa-

rraldeko lurralde batera zetorrela. Zituen erreferentzia bakarrak Espainiari buruzko betiko topikoak ziren: eguzkia, sangria... Oriora iritsi eta herri batekin egin zuen topo, hizkuntza batekin, eta hasieratik oso ondo konpondu zen hemengo jendearekin.

Euskaldunak bete egiten du emandako hitza, eta fundamentua du lanerako. Frankfurtetik Oriora alde handia zegoen. Hura hiri handia zen eta Orio Francoren diktadurapean zegoen arrantza giroko herri txikia. Ni botoa ematen ohitua nengoen eta lagun artean sexuaz hitz egiten; hemen ez zegoen horrelakorik. Jendeak ez zeukan mentalitate hori...

[IÑAKI ITURAIN]

Ikasleak idazle
Maidor Manzanos

Gazteen lokalak

Gauregun, Orion 15 urte inguruko nerabeek lokalak hartzea arrunta da, batik bat, kalean ez dakitelako zer egin, eta tabernetara joateko ere ez dutelako adinik. Beraz, lagun talde bat bildu eta denbora pasatzeko toki bat hartzen dute. Gauza da, moduak daukela lokalak mantentzeko. Lokal bat alokatzeko erabakia hartzen denean,



erantzukizun bat ere hartzen da: garbiketak, alokairua ordaintzeko epea... Bizi-

lagunei ere ez zaie molestatu behar, eta lokalekoak ere, guztiak gustura egoteko modua aurkitzea ez da gauza erraza. Kanpotik begiratuta gauza konplikatuak ez badirudi ere, arazo asko ekartzen ditu. Baina, hala ere, lokalak ondo antolatzen bada -arauak errespetatuz, garbiketak taldeak...-, lagunekin egoteko leku aproposa izan liteke.

Lokal bat alokatzeko erabakia hartzen denean, erantzukizun bat ere hartzen da: garbiketak, alokairua ordaintzeko epea...

» HANDIK ETA HEMENDIK



“Aitak eta irabazten zutenean, gu umeak ginen, eta sekulako ilusioa egiten zigun bandera ekartzen zutenean. Haiek bezalakoak izan nahi genuen”

Miguel Angel Lizarralde, arraunlaria, Arkupean, 2012-IX-6

“Negatibo piloa izango dira arraun elkartean. Askotan ni neu ere harrিতuta geratzen naiz, argazkiak atereaz gogoratzen ditudan bidaia, leku eta pasadizoez”

Joxemari Olasagasti, argazkilaria, Arkupean, 2012-VIII-9

» OSPAKIZUNA



Saharako haurrak Orion

Uda honetan ere Saharako haur ugari izan dira Gipuzkoako hainbat herritan. Abuztuan irteera izan zuten Oriora. Umeei eta haien begiraleei harrera egin zieten Orioko Udaleko arduradunek udaletxe atarian, eta txu-txu trenean ibiltzeko txartelak opartu zizkieten. Egun ederra pasa omen zuten sahararrek Orion, irribarretsu, argazkian ikusi daitezkeen bezala.

» ZORITXARRAK!

Igogailu txikitzaileei

Orion geroz eta igogailu publiko gehiago ari dira jartzen, irisgarritasun arazoak dituzten herritarrek izan ditzaketen zailtasunak arintzeko.

Baina, herritarren arteko errespetuan hobetzeko asko daukagu oraindik. Uztailaren hasieran Kultur Etxe atzeko igogailuan nahita piztutako sutea izan zen eta igogailua bi hilabete pasatxoan ezin erabilita egon da.

Tren geltokiko igogailua ere abuztuan jarri zuten martxan, baina erabiltzeko moduan jarri eta gutxira botoiak eta kabinako paretak hondatu zituzten.

Eta, noski, hori guztia herritar guztien poltsikotik ordainduko da. Begirune pixka bat gehiago, mesedez.

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutzizak

Euzko Guderi, 5 - Tel. 943 24 87 74 - Orio

Igo zaituz haize berrietara!

Galerna I

943890416 - 677149934

galerna1orio@hotmail.com

Goizeko

KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Leiburdi, 33 behean - ORIO

Autobus parada ondoan

Dorronoro Denda

1963tik zure ondoan

BETIKO DENDA

Tel 943 83 09 37

» JAIOTAKOAK

- Markel Etxeberria Urkizu, Orion, irailaren 6an.
- Unai Bueno Tamayo, Orion, abuztuaren 21ean.
- Axier Manterola, Garrido, Orion, abuztuaren 21ean.
- Aiora Rodriguez Masa, Orion, abuztuaren 16an.
- June Olaizola Olasagasti, Orion, abuztuaren 16an.
- Uxue Makazaga Beldarrain, Orion, abuztuaren 2an.
- Aitana Ordoñez Penco, Orion, abuztuaren 2an.
- Peru Eizagirre Iruretagoiena, Orion, abuztuaren 2an.
- Ahmed Salek, Orion, uztailearen 24an.
- Malen Eskudero Leunda, Orion, uztailearen 17an.
- Aiala Bidasoro Gaztelumendi, Orion, uztailearen 17an.
- Anuxka Peña Arabaolaza, Orion, uztailearen 12an.
- Eliot Denay Anrango Peña, Orion, uztailearen 10ean.
- Izar Millares Esnal, Orion, uztailearen 7an.
- Hodei Uranga Etxeberria, Orion, uztailearen 5ean.
- Mikel Fombellida Puertas, Orion, uztailearen 3an.
- Iban Arrillaga Azpiroz, Orion, ekainaren 26an.
- Luken Perez Uriarte, Orion, ekainaren 21ean.
- Aiora Amonarriz Huegun, Orion, ekainaren 19an.
- Markel Tejado Castelo, Orion, ekainaren 14an.
- Iker Tejado Castelo, Orion, ekainaren 14an.


» EZKONDUTAKOAK

- Estibalitz Etxeberria Iñarra eta Iban Etxaniz Jimenez, Orion, irailaren 4an.
- Xabier Ibarbia Etxeberria eta Amaia Urkola Goenaga, Orion, irailaren 4an.
- Gorka Ikutza Maiz eta Naiara Arriola Garikano, Orion, uztailearen 24an.
- Maialen San Sebastian Lanberri eta Kepa Maiz Aizpurua, Orion, uztailearen 19an.
- Oihana Aseginolaza Alkorta eta Aitziber Beristain Garziandia, Orion, uztailearen 10ean.
- Joxe Luis Arana Ramos eta Elisa Manterola Esnal, Orion, uztailearen 3an.
- Izaskun Gaztelumendi Koka eta Joxe Mari Bidasoro Urkizu, Orion, ekainaren 21ean.

» HILDAKOAK

- Ignacio Zaldúa de la Cruz, Orion, irailaren 7an, 47 urte.
- Jose Javier Arruti Goikoe-txea, Orion, irailaren 6an, 78 urte.
- Maria Luisa Larrañaga Mu-rua, Orion, irailaren 3an, 94 urte.
- Rosa Egurza Iruretagoiena, Aian, abuztuaren 27an, 88 urte.
- Antonia Avila Montero, Orion, abuztuaren 25ean, 87 urte.
- Maria Angeles Arruti Agote, Orion, abuztuaren 20an, 57 urte.
- Jesusa Andonegi Oses, Orion, uztailearen 29an, 89 urte.
- Ramona Ercilla Etxeberria, Orion, uztailearen 25an, 89 urte.
- Jaione Iribar Azpeitia, Orion, uztailearen 23an, 50 urte.
- Juan Jose Egibar Aranjuelo, Orion, uztailearen 22an, 61 urte.
- Maria Kortajarena Azkona-bieta, Aian, uztailearen 18an, 90 urte.
- Joakin Lertxundi Arrillaga, Orion, uztailearen 17an, 87 urte.
- Juan Mari Egurza Irureta-goiena, Aian, uztailearen 16an, 83 urte.
- Consuelo Bracamonte Bra-camonte, Orion, ekainaren 25ean, 79 urte.
- Ana Manterola Huegun, Aian, uztailearen 12an, 85 urte.
- Mari Carmen Iribar Iribar, Aian, ekainaren 21ean, 86 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



“Askok uste du altu eta guapo izate hutsarekin modelo izan daitezkeela”

Richard Arrese-Igor

Modeloa

Guapo de España lehiaketan bigarren izan da Richard Arrese-Igor Orion bizi den donostiarra eta dotoreziaren saria ere eskuratu du. Futbola eta moda kontuak aurrez aurre jarri eta oraingoaz modari helduta *First Models* agenziarekin ari da lanean.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Lagunek eta senideek modelo izateko balioko zukeela esan eta orain dela zortzi hilabete amak Donostiako modelo agenzia batera deitu ondoren pixkanaka erakarri du moda munduak. Pasarelan eta lehiaketetan modelo lanetan ari da.

Nola bururatu zitzazun *Guapo de España* lehiaketan parte hartzea?

Agentziatik bidali ninduten, baina ez nuen lortutako emaitza espero esan baitzidaten modelo oso guapoak egongo zirela eta prestatzeko. Agentziako mutilen arduradunak beti esaten dit kremak emateko, gorputza zaintzeko... Gorputza zaintzen dut errespetatzen dudalako, ez modeloa naizelako. Dotore jantzeko ere esaten dit, baina ni beti txandala erabiltzekoa izan naiz.

Lehiaketa ez da desfile hutsa, eta erakusleho oso ona da. *Larios* pasarelan desfilatzeko aukera eman eta Murtzia eta Bartzelonako agenzia banak bereaiekin aritzeko eskaintza egin didate.

Lehiaketa errepikatuko zenuke?

Modeloen artean komertzialak eta modara bideratuta daude, eta ni moda alorrekoa naiz. Komertzialek beraien gorputza saltzen dute eta modakook arropa, baina edozein lehiaketarako aukera sortuz gero joango nintzateke.

Modelo agenzia batean sartzeko norberakikusi behar du bere burua guapo?

Futbolari batek futbola denbora-pasatik zerbait serioago izatera pasa nahi badu sinetsi behar du baduela horretarako gaitasuna. Bakoitzak badaki bere mugak non dauden. Norbaitek moda munduan sartu nahiko balu zera esango nioke:

erreala izateko. Asko daude altu eta guapo izaterekin modelo izan daitezkeela uste dutenak. 1,85 metrotik gora izatea abantaila da, baina ez da nahikoa. Ibiltzen jakitea edo argazkietarako posatzea, hitz-jarioa, aktore puntua... ere behar dira. Bestalde, ezezko asko jasotzen dira eta horren aurrean ez errenditzen eta prestatzen ere jakin behar da.

Epaimahaikoek zer baloratzen dute?

Titulua *Guapo de España* da eta irabazi zuena oso ederra da; baina uste dut bigarren tokirako ni baino guapoagoak bazudela. Hala ere, kontuan hartzen dituzte desfilatzen jakitea, jokamoldeak...

Eta zuk zure itxuratik zer nahiago?

Modarako esan zidaten nire altuera -1,93 metro- gehiegizkoa zela, baina esperientziak alderantzizkoa erakutsi dit; zenbat eta altuagoa izan, proportzionatua izanez gero, hobea dela. Altuera eta desfilatzeko dudan moduarekin gusturago eta jendaurrean egoten ere badakit. Nire aurpegia eta gorputza 10ekoak ez diren arren, gustuko ditut.

“Agentziako mutilen arduradunak dotore jantzeko esaten dit, baina ni beti txandala jantzita ibiltzekoa izan naiz”

“Nire altuera eta desfilatzeko moduarekin gusturago eta jendaurrean egoten badakit. Aurpegia eta gorputza 10ekoak ez dira baina gustuko ditut”

Ze moda ekintzatan hartu duzu parte?

Eroskiko arropa katalogoan atera nintzen; Euskadin garrantzitsuena den *Getxo Moda* pasarelan, Cibeleserako aritzen den Francis Montesinosen arroparekin; eta Donostiako *Moda Astea* ere...

Aurrerantzean modan jarraituko duzu?

Badut erronka bat Estanbulen desfilatzeko. Cibeles pasarelakoek gure agenziara deitu zuten modelo eske, baina curriculum begiratzen dute eta hasiberria naizenez ez ninduten hartu. Atzerri-rajateak Cibeleserako ateak irekiko dizkidala uste dut. Horrez gain, Bartzelonako agenzia batek fitxatu nahi nau. Bestalde, Bartzelonan modelo berrientzako *Fresh Faces* lehiaketan ere hartuko dut parte. Lehiaketa hori irabaziz gero, Europako agenziarik onentsuekin aritzeko aukera izango nuke.



KARKARA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokatzeko

- Pisua alokatzeko Orioko erdigunean. Tf.: 696 332 880 (Jone).
Bartzelonan, lau logela, sukaldea, bi komun eta egongela dituen ikasleen etxebizitzan gela bat alokatzen dugu. (Molina Plaza ondoan). 637111587 (Marisa).
Neska, pisukide bila, Orion alokairuko etxebizitza partekatzeko. Tf.: 688639156.
Aita Lertxundi, 21ean 3 logela eta garajedun etxebizitza alokatzeko. Tf.: 609917399.
Orioerdian 3 logelako etxebizitza dut alokatzeko. Amaia. Tf.: 608164971.

Lan eskaera

- Neska lan bila. Erreferentziekin. Tf.: 697 650 519 (Marina).
Gizon gaztea esperientzia eta erreferentziekin adinekoak zaintzeko prest. Ordenagailuak ere konpontzen ditut. Tf.: 659 810 396 (Danil).
Gizon gaztea esperientzia eta erreferentziekin adinekoak zaintzeko. Tf.: 669 705 724 (Angel).
Emakume batek adinekoak zainduko lituzke. Ahal bada barneko beza- la. Tf.: 674 413 970 (Jojita) eta 620 778 480 (Rosario).
Neska haurrak edo adinekoak zaindu, eta garbiketaketak egiteko. Barneko edo kanpoko. Esperientzia eta erreferentziekin.

Tf.: 680 788 599 eta 943 831 128.

- Astebukaeretan edadekoak zaindu edo bainatzeko prest. Tf.: 664 834 388.
Edadetuak edo umeak zaintzeko prest. Orduka, etxean edo kanpoan bizitzaren. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Tf.: 630 850 167.
Eskarmentua duen neska euskalduna umeak eta edadetuak arratsaldean zaintzeko prest. Tf.: 609 807 151.
Bi neska prest, edadetuak edo umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko. Orduka, etxean bertan bizitzen edo kanpoan. Tf.: 699 184 832.

» ITSASOIA

Table with 4 columns: EGUNA, ITSASGORA, ITSASBEHERA, ILARGIA. Rows 14 to 28 showing daily tide and moon phases.

» ZAINTZAKO BOTIKAK

- IRAILA
14an, Lasa.
15 eta 16an, Larrañaga.
17an, Zulaika.
18an Azaldegia.
19an, Gallo.
20an, Iriarte.
21ean, Zulaika.
22 eta 23an, Mutiozabal.
24an, Azaldegia.
25ean, Zulaika.
26an, Iriarte.
27an, Larrañaga.
28an, Mutiozabal.
Gauetako zaintzako botika: Zulaika
Azaldegia: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
G. Artifiño: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Train schedule table for Donostia-Zarautz with columns for time intervals from 5:47 to 22:20.

ZARAUTZ-DONOSTIA

Train schedule table for Zarautz-Donostia with columns for time intervals from 6:08 to 22:40.

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Bus schedule table for Donostia-Zarautz on weekdays with columns for time intervals from 6:55 to 23:05.

ZARAUTZ-DONOSTIA

Bus schedule table for Zarautz-Donostia on weekdays with columns for time intervals from 6:45 to 22:00.

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Bus schedule table for Donostia-Zarautz on weekends with columns for time intervals from 8:00 to 23:05.

ZARAUTZ-DONOSTIA

Bus schedule table for Zarautz-Donostia on weekends with columns for time intervals from 6:45 to 22:40.

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



Erraldoiak dantzatzeko prest?

Festetan eta bestelako ekitaldietan erraldoi eta buruhandiak ibili ohi dira kaleetan. Erraldoiak dantzatzeko, ordea, jendea behar da eta horretarako prest dauden 18 urtetik gorako neska-mutilei dei egin nahi diete erraldoien konpartsa sortzeko bilerara. Kultur Etxean izango da irailaren 17an, Kultur Etxean. Taldea osatuz gero, zehaztuko dute Pello eta Nikolasa erraldoiak dantzatzen ikasteko saioak noiz egingo dituzten.

Orio

Erakusketa

■ Irailaren amaiera arte, arraunari buruzko argazki erakusketa. Argazkilariak: Joxemari eta Joxeju Olasagasti anaiak. Salatxo tabernan.

Ikastaroak

■ Argazki kamerak erabiltzen ikasteko ikastaroa. Eguna eta ordua, zehazteke. Irakaslea: Iñaki Kaperotxipi. Interesatuak deitu 629 440 352 zenbakira (Joseba).
 ■ Irailaren 14an, Mandalara taldeko ikastaroen aurkezpena, irakasleekin. 19:00etan, Kultur Etxean. Izena emateko: 648 487 489 edo mandalarataldea@gmail.com.
 ■ Asteazkenetan. Mandala ikastaroa, 15:00-16:30. Kosta

Tailerrean.

■ Irailaren 15ean eta 16an eta 22an eta 23an, energiari buruzko ikastaroa, Alex Arellanoren eskutik. Larunbat arratsaldeetan eta igande goizetan. Kosta Tailerrean.
 ■ Astelehenetan, aromaterapia saioak, 16:00-18:00. Tarot ikastaroak, 18:00-20:00. Kosta Tailerrean.
 ■ Astearteetan, erretiratuentzako yoga, 10:00-10:40.
 ■ Chikung CFQ (norbere burua sendatzeko), 15:00-16:30 edo 20:00-21:30era. Kosta Tailerrean.
 ■ Ostegunetan, gidatutako meditazio saioak, 14:45-16:15. Bach loreak, 17:00-19:00. Kosta Tailerrean.
 ■ Ostiraletan. Yoga ikastaroak 10:00-11:00 edo 16:00-17:00. Kosta Tailerrean.
 ■ Ostegunetan, jazz-dance ikastaroak Warda Mallal irra-

kaslearekin. Kosta Tailerrean. Prezioa: 25 euro. Izena emateko deitu 637 256 851 ra.

■ Astearte eta ostegunetan, dantza modernoa (Gym-dance) Warda Mallal-ekin. Kosta Tailerrean. Prezioa: 30 euro. Izena emateko: 637 256 851

Hitzaldia

■ Irailaren 25ean, bularreko minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Arrate Plazaola, onkologoa. 18:00etan, Kultur Etxean.

Traste zaharrak

■ Irailaren 26an, traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Aurrez udaltxera deitu zer botako duzuen jakinaraziz. Tf.: 943 83 03 46.

Kirola

■ Astearte eta ostegunetan,

umeen pilota entrenamenduak. Adin eta maila mugarik gabe. Probatzeko aukera badago. 17:00etatik 19:00etara, Udal pilotalekuan.

■ Irailaren 16an, TKErako igotza ikustera joateko autobusa. 09:30ean, autobus geltokian. Izen-ematea: Salatxo tabernan. 14 euro.

■ Realeko partidak ikustera joateko autobusa. Irteera: partida baino ordu bete lehenago, autobus geltokian. Izen-ematea: Salatxo tabernan. 122 euro.

■ Irailaren 25ean, frontenis txapelketako bilera. 20:00etan, frontoian.

Odol-emaeleak

■ Irailaren 21ean, odol-ateratzea. 18:30etik 20:30era, Anbulatorioan.

Aia

Idi-dema

■ Irailaren 15ean, idi apustua: Joxe Mari Izetaren idiak Patxi Arzadunen idien aurka, 1.600 kiloko harriarekin. Apustua: 1.500 euro alde bakoitzak. 22:00etan, probalekuan.

2012-13 ikasturtean ere, murgildu zaituz kiroldegian

IKASTAROA	EGUNAK	ORDUTEGIAK
GERILEKUKO IKASTAROA		
GERIK HAURTZOAK	5	16:30-17:15 / 17:15-18:00
GERIK HAURTZOAK	6	10:00-10:45 / 10:45-11:30
GERIK HAURRAK	1-3	16:45-17:15 / 17:15-17:45 / 17:45-18:15 / 18:15-18:45
GERIK HAURRAK	2-4	16:45-17:15 / 17:15-17:45 / 17:45-18:15 / 18:15-18:45
GERIK GAZTEAK	2-4	18:15 - 19:00
GERIKETA PERTS HAURRAK	1	18:15 - 19:00
GERIKETA PERTS HAURRAK	2	18:15 - 19:00
GERIKETA PERTS HAURRAK	3	18:15 - 19:00
GERIKETA PERTS HAURRAK	5	18:00 - 18:45 / 18:45 - 19:30
GERIKETA PERTS HAURRAK	6	9:15 - 10:00 / 11:30 - 12:15
GERIK HELDUAK HASTAPENA	1-3	19:45 - 20:30
GERIK HELDUAK HOBEKUNT	1-3	19:00 - 19:45
GERIK PERTS HELDUAK 45'	egunero	partisonalizatua
ACQUAEROBIK	2-4	9:45-10:35 / 19:30-20:20
HAURREN IKASTAROA		
JUDO	2-4	17:15-18:00 / 18:00-18:45 / 18:45-19:30
KARATE	5	17:00-17:45 / 17:45-18:30
GYM-JAZZ		
HELDUEN IKASTAROA		
AEROBIK	2-3-5	7:10 - 8:00
AEROBIK	1-3-5	9:30 - 10:20
AEROBIK	2-4	19:30 - 20:20
FISIOSASUNA	1-2-4	18:45 - 19:30
FITNESS PERTS	egunero	partisonalizatua
GIHAR-TONIC	1-5	8:30 - 9:20
GIHAR-TONIC	2-4	18:30 - 19:20
MANTENIM. EDADETUAK	1-3-5	10:30 - 11:20
CIRCUIT TRAINING	1-3	20:00-20:50
PILATES	2-4	8:45-9:35 / 9:45-10:35 / 20:30-21:20
PILATES	1-3	19:45-20:35 / 20:45-21:35
PADEL	2-4	17:00-17:50 (-16) / 18:00-18:50 (+16)
SPINNING	2-4	9:30-10:20 / 14:40-15:30 / 20:30-21:20
SPINNING	1-3	18:30-19:20 / 19:30-20:20
SPINNING	1-3-5	14:40 - 15:30
YOGA	1-3	10:30 - 12:00
YOGA	2-4	15:30 - 17:00

EGUTEGIA	
HAURRAK	
1. IKASTAROA	2012/10/01 - 2011/12/15
2. IKASTAROA	2011/01/09 - 2011/03/17
3. IKASTAROA	2011/03/19 - 2011/06/12
HELDUAK	
1. IKASTAROA	2011/09/26 - 2011/12/23
2. IKASTAROA	2011/01/02 - 2011/03/23
3. IKASTAROA	2011/03/26 - 2011/06/22

Izena emateko epea zabalik!

Ikastaroen iraupena: 50 minutu
Igerilekua 21:00etan itxiko da

info+

Tf.: 943 894 428

Harrera ordutegia: 08:00-12:30
eta 14:30 20:30